

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

Ebazpena, 2020ko EPEari eta 2021eko EPEari dagozkien enplegu publikoaren eskaintzarako deialdiaren oinarriak onesten dituen. Oinarri orokorrak eta espezifikoak

Ikusirik lehendakaritzaren 2020ko azaroaren 19ko eta 2021eko azaroaren 10eko ebazpenen bidez onetsi zirela Arabako Lautadako Kuadrillaren 2020. eta 2021. urteetarako enplegu publikoaren eskaintzak, dagozkien hautaketa-prozesuen bidez bete beharko diren plazak jasotzen dituztenak.

Hautaketa-prozesuen kudeaketako ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiek gomen-datzen dute batera egitea 2020. eta 2021. urteetako enplegu publikoaren eskaintzak, gizarte-langile eta arkitekto lanpostuei dagozkienak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala eta azpieskala bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta haietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluan eta VI. titulu I. kapituluaren langileen hautaketari buruz ezarritakoaren arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.g) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarrena. Onesten dira Arabako Lautadako Kuadrillaren zerbitzuko karrerako funtzionarioa izateko hautaketa-prozesua, 2020. eta 2021. urteetarako enplegu publikoaren eskaintza onetsi duten lehendakaritzaren 2020ko azaroaren 19ko eta 2021eko azaroaren 10eko ebazpenetan aurreikusitakoa, arautuko duten oinarri orokorrak. Ebazpen honen eranskinean daude jasota.

Hirugarrena. Onesten dira Arabako Lautadako Kuadrillaren administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko karrerako funtzionarioa (A (A1) taldea, arkitektoa) izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, I. eranskinean jasotzen direnak.

Laugarrena. Onesten da II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda.

Bosgarrena. Onesten dira Arabako Lautadako Kuadrillaren administrazio bereziko eskalako erdi-mailako teknikarien azpieskalako karrerako funtzionarioa (A2 (B) taldea, erdialdeko gizarte-laguntzailea) izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, III. eranskinean jasotzen direnak.

Seigarrena. Onesten da IV. eranskinean jasotzen den gai zerrenda.

Zazpigarrena. Ebazpen hau eta deialdiaren oinarrien testu osoa argitara ematea ALHAOn eta kuadrillaren egoitza elektronikoan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 79.4 artikuluan arabera.

Zortzigarrena. Deialdiaren laburpen bat Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta horren iragarkia argitaratzen den eguna erabiliko da eskaerak aurkezteko epea kontatzeko.

Bederatzigarrena. Ebazpen honen berri ematea kuadrillako Batzordeari, egiten duen hurrengo bilkuran.

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzien epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta—.

Agurain, 2023ko ekainaren 1a

Lehendakaria

RUBÉN RUIZ DE EGUINO LÓPEZ DE GUEREÑU

ERANSKINA. OINARRI OROKORRAK

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAREN ZERBITZUKO KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUA, 2020. ETA 2021. URTEETARAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONETSI DUTEN LEHENDAKARITZAREN 2020KO AZAROAREN 19KO ETA 2021EKO AZAROAREN 10EKO EBAZPENETAN AURREIKUSITAKOAK, ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORRAK

1. XEDEA.

1.1. Oinarri hauen xedea da Arabako Lautadako Kuadrillaren eskala, azpieskala eta klaseetako plazak betetzeko arau orokorrak ezartzea. Plaza horiek oinarri espezifikoetan adieraziko dira.

1.2. Dei egiten da Arabako Lautadako Kuadrillako karrerako funtzionarioen 2 plaza huts sistema irekiaren bidez betetzeko hautaketa-probetarako.

Sistema bakarra ezartzen da parte hartzeko edo sartzeko, ondoko eduki honekin: Sarrera irekiko sistema: txanda orokorra.

1.3. Baldintzaren bat ezarrita daukaten lanpostuak inolaz ere ezin izango dira bete baldintza hori betetzen dutela frogatzen ez duten izangaiekin.

2. BALDINTZA OROKORRAK.

2.1. Izendapenak Arabako Lautadako Kuadrillako karrerako funtzionario izaera emango die hautatutakoei, arlo horretan indarrean dauden xedapenek adierazten dituzten eskubide eta betebeharrak guztiekin.

2.2. Hautaketa prozesua amaitzen denean dauden eta dei egindako plazari dagozkion lanpostu hutsen arabera izango da zerbitzua emateko destinoa.

3. IZANGAIEN BETEKIZUNAK.

Oinarri espezifikoaren deialdian jasoriko hautaprobetarako onartuak izateko eta, hala badagokie, haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, hautaketa prozesuak dirauen bitartean eta, hala badagokie, esleitzen zaion lanpostuaz jabetzeko unera arte, betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Halaber, Europar Batasuneko estatueta herriartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bananduta ez badaude, bai eta herriartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, ezkontideak legez bananduta ez badaude eta ondorengoek hogeita bat urte baino gutxiago badute edo gurasoen kontura bizi diren adindunak badira.

b) Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea zereginak betetzeko.

c) Hamasei urte beteta izatea eta legez erretiro arrunterako ezarritako adina ez gainditzea.

d) Diziplinazko espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, herri administrazioei edo konstituzio organoei nahiz autonomia erkidegoetako estatutu organoei dagokienez, eta ebazpen judizial baten bidez erabat desgaituta edo desgaitze bereziarekin ez egotea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo ezgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko ere. Batasuneko beste estatu batekoak diren izangaiak ezin dira egon desgaituta enplegu publikoan aritzeko (ez eta horren baliokide den egoera batean ere), eta ezin jaso izan dute beren estatuan enplegu ofiziala lortzea eragozten duen diziplinako zehapenik ez antzekorik.

e) Betetzen zituen eginkizunen antzekoak betetzeko desgaitua ez izana, lan kontratuko langileen diziplinazko kaleratzeko zehapen baten ondorioz, oso falta larria egiteagatik.

f) Dagokion deialdi espezifikoa eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

g) Oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako betekizun guztiak.

h) Indarreko araudiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea.

4. PERTSONA EZINDUAK.

4.1. Gainerako izangaien baldintza beretan parte hartzen dutela bermatzeko, hautapen prozesuetan behar diren arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapenak eta doikuntzak egingo dira hala eskatzen duten ezinduentzat; ezinbestekoa izango da desgaitasunak zerikusi zuzena edukitzea egin beharreko probarekin.

4.2. Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, ezinduek aurkeztutako agiriak aztertuta, probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

5. ESKAERAK AURKEZTEA.

5.1. Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

a) Oinarri espezifikoetan zehazten diren plazak hornitzeko hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek hogeit egun baliaduneko epean aurkeztu beharko dute eskaera, dagokien deialdia Estatuaren Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Eskaerak, kuadrillaren lehendakartzari zuzenduta, eredu ofizial eta normalizatuaren arabera egingo dira eta kuadrillaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira: <https://www.arabakolautada.eus/fichas/17/211/Sede-Electronica>. Arabako Lautadako Kuadrillaren erregistro orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira, behar den bezala beteta.

Aplikatzekoa izango da, halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 16.4. artikulua.

Eskaeraren barruan egongo da 5.4 apartatuan ezartzen den azterketa-eskubidearen tasaren ordainketa.

5.2. Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari erreparatuta, 9.3.2 oinarrian euskara probetarako jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik.

Horretarako, honako datu hauek adierazi beharko dira eskaerako kasuan kasuko ataletan:

- a) Eskatzen diren datu pertsonalak.
- d) Zer plazatarako lehiatu nahi den.
- c) Oposizio faseko ariketak zer hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.
- d) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko euskara ariketa egiteko hautua.
- e) Desgaitasunik izanez gero: probak egiteko denbora eta baliabide moldaketak edo doikuntzak (zehaztu).

5.3. Izangaiek eskaeran emandako informazio guztia tratamendu jarduera baten barnean sartuko da. Horren erabilera hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ezingo da izan. Tratamendu jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei buruzko eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoaren arabera egingo dira.

Hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek berariaz ematen dute baimena, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten moduan eta finkatzen den xederako erabiltzeko.

5.4. Azterketa eskubidearen tasak.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek tasa hauek ordaindu beharko dituzte eskaerak aurkezteko epearen barruan: 15,00 euro.

Kutxabank banketxeko ES80 2095 3234 1110 9523 1048 zenbakiko kontuan dirua sartuz ordainduko da tasa (kontuaren titularra: Arabako Lautadako Kuadrilla). Eskaerarekin batera ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da.

Azterketa eskubideen tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik.

Tasa hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira eskaera aurkezten den egunean:

- a) Gizarte Segurantzaren araubideetako batean ere edo, hala dagokionean, lanbide mutualitatean jardule moduan altan ez daudenak.

Salbuespen hau aplikatzeko, subjektu pasiboak dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

- b) Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitorturik daukatena, desgaitasunen txandarako plaza erreserbarik ez dagoen deialdietan aurkezten baldin badira.

Salbuespen hau aplikatzeko, subjektu pasiboak desgaitasun maila egiaztatzen duen txartela aurkeztu beharko du, eskumena duen erakundeak egina.

Tasaren kuota ehuneko 50eko murrizketa izateko eskubidea edukiko dute eskaera aurkezten duten egunean familia ugariako kide izaera aitorturik daukatenean.

Murrizketa hau aplikatzeko, subjektu pasiboak familia ugariaren agiria aurkeztu beharko du, edo eskumena duen erakundeak emandako familia ugariaren karnet baliodunaren fotokopia.

Salbuespena edo murrizketa izateko eskubidea daukatenean, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenago, kasuan kasurako adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

6. IZANGAIK ONARTZEA. ERREKLAMAZIOAK.

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, lehendakariak, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena emango du; horren bitartez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Zerrenda honetan sartuta egongo da ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeako proba egiteko hautua egin den. Ebazpen hori ALHAOn eta Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

Baztertutako izangaiek eta argitaratutako datuetan okerren bat ikusten dutenek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute behin-behineko zerrendak ALHAOn argitaratzen denetik aurrera erreklamazioak egiteko edo okerrak zuzen daitezela eskatzeko.

6.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, eta ebatzi eta gero, lehendakariak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak onesten dituen, behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberak zehaztuta. Zerrenda horiek ALHAOn argitaratuko dira.

6.3. Ebazpen hori, halaber, Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

6.4. Probak egiten diren egunean oraindik ebatzi gabe badaude onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko ebazpenean prozesutik baztertuta agertu ziren izangaiek aurkeztutako errekursoak, eragindako pertsonen proba horiek egin ahal izango dituzte, baina ez dute baliorik izango errekurso horiek ezesten badira.

6.5. Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen ditzutela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 11. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; agiriaren bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaprobaren parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

7. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAK.

7.1. Izendapena:

Lehendakaritzaren ebazpen bidez, hautaketa-probak kalifikatu behar dituzten epaimahaietako kideak izendatuko dira. Izendapen horiek eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak batera argitaratuko dira ALHAOn eta Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian.

7.2. Osaera:

Deitutako plazak hornitzeko izangaien hautaketa epaitu behar duten epaimahaien osaera orekatua izango da, sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkartza izanik, nola eta ez den behar bezala justifikatzen hala ez dagokiola.

Epaimahaiak mahaiburu batek eta zenbaki bakoitia egiten duten hiru bokal edo gehiagok osatuko dute, gehi idazkariak eta haien guztien ordezkoeak.

Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaiak osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Epaimahaiak hala komeni dela baderitzo, aholkulari espezialisten laguntza edukiko dute epaimahaietako kideek. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

7.3. Abstentzioa eta errekusatzea:

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoak, 23. artikuluan ezartzen dituen inguruabarretako bat gertatuz gero, epaimahaietako kideek uko egin beharko diote jarduteari eta kuadrillako lehendakariari jakinarazi beharko diote.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, bat etorritik aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin.

7.4. Epaimahaikideak oinarriari lotzea:

Epaimahaiak lotuta geratzen dira oinarri orokor hauei eta kalifikatu beharreko probetako hautapen prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoak.

7.5. Jarduteko arauak:

Epaimahaien jarduna urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenari lotuko zaio.

Nolanahi ere, epaimahaiburuak aginduta eta idazkariak deialdia eginda, epaimahaiak bilerara egingo du hautaprobak hasi baino nahikoa denbora lehenago. Epaimahaia legez eratzeko ezinbestekoa izango da honako hauek bertaratzea: epaimahaiburua eta idazkaria (edo haien ordezkariak) eta kideen erdiak, gutxienez.

Erabakiak bertaratu diren botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Epaimahaiburuaren edo beraren ordezkariaren kargua hutsik badago, bertaratzen ez bada, gaixorik badago edo legezko arazoaren batek bilerara azaltzen ez bada, epaimahaikide hauetako bat izango da ordezkaria (hurrenkera honetan): hierarkian maila goragokoa duena, antzintasun handiena duena eta zaharrena.

Idazkaririk eta bere ordezkariak ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arazoaren bat badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ebatziko du.

7.6. Ahalmenak:

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduko dute eta haren objektibotasuna bermatuko dute.

Epaimahaiak ebatziko dituzte 5.2.e) oinarrian ezartzen denaren arabera probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoaren arazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko aurkeztu diren eskaerak, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertu ondoren.

Halaber, eta ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebatziko dituzte, eta behar diren erabakiak hartuko dituzte deialdi bakoitza era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

Hautapen prozesuko edozein unetan epaimahaiak deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzeko eskatu ahal izango du, eta horretarako 20 egun balioduneko epealdia ezarriko du. Izangaietako batek betetzen ez baditu edo epealdiren barruan egiaztatzen ez baditu, epaimahaiak entzunaldia emango zaio interesdunari eta gero prozesutik baztertzeko proposamena egingo dio kuadrillako lehendakariari, baztertzeko proposamenaren arazoak azalduta.

Epaimahaiburuak behar diren neurriak hartuko dituzte oposizio faseko proba idatzien edukia isilpean gordetzen dela bermatzeko eta ariketak izangaiak nor diren jakin gabe zuzentzeko.

Ariketak modu mekanizatuan zuzentzen ez diren kasuetan, epaimahaiak baztertu egingo dituzte izangaiak baldin eta ariketa idatzietan beren nortasuna jakiteko aukera ematen duen marka edo zeinurik badago.

7.7. Egoitza:

Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, epaimahai kalifikatzaileen egoitza ondoko hau izango da: Senda de Langarika plaza 4 behea, 01200 Agurain, Araba.

8. DEIALDIAK, JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA.

8.1. Hautaprobak ez dira hasiko hilabete baino lehen, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatuta.

8.2. Oposizio fasea eratuko duten ariketen artean, 9.2.1 oinarriaren arabera, lehenengoa egiteko deialdia ALHAOn argitaratuz egingo da. Hautaketa-prozesuaren ondoriozko gainerako komunikazio eta jakinarazpenak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: <https://www.arabakolautada.eus/>.

8.3 Deialdien informazio orokorra hemen dago, interesdunen eskura:

* Internet: <https://www.arabakolautada.eus/>.

* Arabako Lautadako Kuadrilla Senda de Langarika plaza 4, 01200 Agurain.

9. HAUTAKETA-PROZEDURA.

9.1. Hautaketa-prozedura oposizio-lehiaketa izango da, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera, eta haietan praktika eta prestakuntza aldi bat jaso daiteke hautaketa-prozesuaren beste urrats baten moduan.

9.2. Oposizio aldiko ariketak:

9.2.1. Oposizio aldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketak izango ditu.

9.2.2. Lehenengo proba egingo den lekua, eguna eta ordua, ALHAOn argitaratuko dira.

9.2.3. Txanda bakoitzeko izangaiei dei bat bakarrik egingo zaie ariketa bakoitzerako. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta dagokion epaimahaiak ebaluatuko ditu. Identifikaziorako, izangaia probetara agiri hauetakoren batekin joango dira: NANA, pasaportea edo gidabaimena, edo agiri baliokidea atzeritarren kasuan.

9.2.4. Epaimahai kalifikatzaileek ezarriko dituzte izangai ezinduek probak egiteko behar dituzten denboraren eta bitartekoen egokitzapenak, baldin eta eskaeran eskatu badituzte eta, betiere, probaren edukia hutsaldu gabe eta eskatzen den gaitasun maila murriztu edo txikitu gabe.

9.2.5. Ariketa baten emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo hasi arte gutxienez hirurogeita hamabi ordu igaro beharko dira, eta gehienez berrogeita bost egun natural.

9.2.6. Izangaia aritzeko hurrenkera, haiek guztiek aldi berean ezin egin ditzaketen ariketetan, epaimahai kalifikatzaileak egingo duen zozketak erabakiko du.

Izangaien artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.

9.2.7. Ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izangaiek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute ariketa horren inguruan egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari. Erreklamazioetarako epealdia amaiturik, eta aurkeztu direnak ebatzi ondoren, epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

9.2.8. Deialdi bakoitzean bi gai zerrenda egongo dira: bata komuna, plazaren titulazio taldeari dagokiona, eta bestea espezifikoa, plazari berari dagokiona.

9.3. Euskara:

9.3.1. Plaza bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna ezarriko da plazaren eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klasearen bitartez hornitu daitezkeen lanpostuek esleituta duten hizkuntza eskakizun nagusiaren arabera.

Edozein plazataraz sartzeko, alde batera utzita dagokion hizkuntza eskakizuna derrigortasun dataduna den edo ez, euskara jakitea baloratu beharreko merezimendu gisa hartu ahal izango da 9.4 oinarrian jasota dagoen lehiaketa aldian, eta balorazio hori, egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren mailaren arabera, hautaketa prozesu osoan lortu daitekeen gehieneko puntuazioaren gainerakoaren ehuneko handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Deialdi bakoitzaren oinarrietan zehaztuko da ehuneko hori.

9.3.2. Euskara ariketa:

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egingo dira, eta nahitaezkoak izango dira derri-gortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten plazararako lehiatzen direnentzat eta boronda-tezkoak derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna dutenentarako lehiatzen direnentzat.

Hala ere, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egin aurretik, epaimahai kalifikatzaileak epe bat irekiko du lehiatzen diren plazaraz dagokion hizkuntza eskakizuna aurrez egiaztatuta duten izangaiek egiaztapen horren ziurtagiria aurkez dezaten, eta hala eginez gero, euskara azterketa egitetik salbuetsita geratuko dira.

Hizkuntza eskakizunak agiri hauen bidez egiaztatu ahal izango dira (azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zenbakia):

a) 4. hizkuntza eskakizuna:

- * Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.

- * Osakidetzaren ziurtagiria, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.

- * 4. mailako ziurtagiria, HABErena.

b) 3. hizkuntza eskakizuna:

- * Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- * Osakidetzaren ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- * 3. mailako edo goragoko ziurtagiria, HABErena.

- * Euskararen Gaitasun Agiria – EGA.

- * Ertzaintzako 2. HE.

- * Irakaskuntzako 2. HE.

- * Hizkuntza eskola ofizialetako gaitasun agiria edo 5. mailakoa (ikasketa plan zaharrean).

- * Hizkuntza eskola ofizialetako C1 gaitasun maila.

- * Euskaltzaindiaren D agiria.

c) 2. hizkuntza eskakizuna:

- * Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- * Osakidetzaren ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- * 2. mailako edo goragoko ziurtagiria, HABErena.

- * Ertzaintzako 1. HE

- * Irakaskuntzako 1. HE.

- * Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.

- * Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 4. maila (ikasketa plan zaharrean).

- * Hizkuntza eskola ofizialetako maila aurreratua.

d) 1. hizkuntza eskakizuna:

* Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

* Osakidetzaren ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

* 1. mailako edo goragoko ziurtagiria, HABErena.

* Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako hirugarren maila (ikasketa plan zaharrean).

* Hizkuntza eskola ofizialetako erdiko maila.

Aplikatzekoa izango da, orobat, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatetik salbuestearena.

Epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du noiz egingo den euskara ariketa; oposizio fasearen barruan egin beharko da.

Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izangaiek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute euskara ariketaren inguruan nahi dituzten erreklamazio guztiak aurkezteko.

Erreklamazioak epealdia amaitu eta aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ondoren epaimahaiak euskara azterketako behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

9.4. Lehiaketa-aldia:

9.4.1. Lehiaketa aldia izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratzea izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera.

Oposizio aldiko azken ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu ostean, hamar egun balioduneko epea ezarriko da oinarri espezifikotik aipatzen diren merezimendu konputagarriak alegatu eta, hala badagokio, egiaztatzeko, euskara jakitearenak izan ezik; izan ere, hori egiaztatuko da 9.3.2 oinarrian jasotzen den ariketa eginda edo 9.3.2 oinarri horren bigarren paragrafoan aipatzen den epean dagozkion egiaztagiria aurkeztuta.

Aurreko paragrafoan adierazten den dokumentazioa Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitzan aurkeztu beharko da, Aguraingo Senda de Langarika plazan, 4 behean.

Inoiz ere ezingo dira baloratu behar bezala alegatu ez diren eta ezarritako epean egiaztatu ez diren merezimenduak.

Oposizio aldiaren egindako azken ariketaren kalifikazioari erreklamazioen bat aurkeztu diotenek, harekin batera, eta hala badagokio, merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte, oinarri espezifikotik adierazitakoaren arabera.

Merezimenduak egiaztatzeko agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuek izan beharko dira, eta fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, eta konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

Igarotako denboraren arabera, urteka, sei hilekoka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak alegatutako aldiaren egunak batuta konputatuko dira eta, behin batura hori eginda, erreferentzia aldia baino frakzio txikiagoak alde batera utziko dira. Horretarako, urtea 365 egun naturalen batura izango da, sei hilekoa 180 egun naturalen batura eta hila 30 egun naturalen batura.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu horretan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagozkion proportzioan murriztuko da.

Lehiaketa-aldiak ez du baztertze izaerarik izango eta bertan eskuratutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gaingitzea.

9.4.2. Alde batera utzita euskara ezagutzaren gainean 9.3.2 oinarrian ezarritakoa, gainerako merezimenduak eskaerak egiteko epeko azken egunari erreparatuta soilik konputatuko dira.

Interesdunek Arabako Lautadako Kuadrillaren egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dituzte, baina ez dituzte egiaztatu beharko. Administrazio horrek ofizioz konputatuko ditu.

Gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuen denbora, dagokion erakundeak egiaztatuko du.

9.5. Hautaprobeen kalifikazioa:

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira.

Lehiaketa-aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotako baremoen arabera esleitutako puntuen batura izango da.

Hautaketa-prozesuko azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa-aldian lortutako puntuen batura izango da.

Berdinketa gertatzen bada, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskala, azpieskala eta klaseetan, salbu eta beste izangaiengan, sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe, neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, berdinketa hausteko ezarritako lehentasun hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

- 1) Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 2) Oposizio aldiko azken ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3) Oposizio aldiko lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 4) Lehiaketa aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 5) Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, denbora hori lehiaketa aldian balioetsi beharreko merezimendua baldin bada deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoen arabera.

10. LANGILEEN HAUTAKETA.

10.1. Hautaketa-prozesuko azken kalifikazioa eginda, dagokion epaimahaiak, kalifikazioen arabera, prozesua gaingitu dutenen zerrenda egingo du.

10.2. Aipatutako zerrendak egin eta gero, epaimahaiak argitara emango dituzte kuadrillaren web orrian: <https://www.arabakolautada.eus/>.

Gaingitu duten behin-behineko emaitza horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte lehiaketa aldiaren gainean egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

10.3. Erreklamazioak egiteko epea amaiturik, eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta gero, epaimahai bakoitzak aginduko du prozesua gaingitu duten pertsonen behin betiko zerrenda bakarra argitara eman dadila kuadrillaren web orrian eta ALHAOn.

11. AGIRIAK AURKEZTEA.

11.1. Gaingitu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitara ematearekin batera, hogeit hamar egun balioduneko epea emango da plaza lortu dutenek aurkeztu ditzaten deialdian ezarritako gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten eta 7.6 oinarrian ezarritakoaren arabera dagokion epaimahaiak lehenago eskatu ez dituen agiriak. Ondoren adierazten dira:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Izangai atzeritarrek jakinarazpen bat jasoko dute, non zehaztuko baita, duten egoeraren arabera, zer agiri aurkeztu behar duten nahitaez.
- c) Eskala eta azpieskala bakoitzera sartzeko eskatzen diren eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren tituluen fotokopia konpultsatua.

d) Zinpeko aitorpena edo hitzematea, adierazten duena eginkizun publikoak egiteko gaituta dagoela eta herri administrazioetako zerbitzutik diziiplina espediente bidez baztertuta ez dagoela, bai eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, herri administrazioetako langileen bateraezintasunenak, ezartzen dituen ezintasun edo bateraezintasun kasuren batean ez dagoela ere.

e) Espainiako nazionalitatezik ez duten izangaiek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazten duena beren estatuan ez dutela funtzio publikora sartzea galarazten dien diziiplina zigorrak ez kondena penalik.

f) Era berean, hautatuak egiaztatu beharko dute ez dutela gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik, dagozkien eginkizunak oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera betetzea eragozten duenik. Horretarako, ziurtagiri medikoa aurkeztuko dute, zeinean adierazi beharko baita ez dutela eginkizunak normal betetzea galarazten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik, ezinduen gizarte integrazioarako apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatzearen kalterik gabe. Ezinduen izaera dutenek, eskumena duten erakundearen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuari dagokion eginkizunak betetzeko beren gaitasuna egiaztatzen duena.

Hautatuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena, agiri egokiak aurkezteko hogeigun balioduneko epea ezartzen duena, ALHAOn eta kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

11.2. Egiaztagiriak, oinarri honetako aurreko puntuen arabera, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dira.

11.3. Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaia zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

11.4. Eskaintzak aurkezteko lekua:

Aurretik esandako agiriak kuadrillaren egoitzan aurkeztu beharko dira (Senda de Langarika plaza, 4 behea, Agurain - PK 01200).

11.5. Agiriak ez aurkeztea:

Plaza lortu duten pertsonak ez badituzte aurkeztu behar diren agiriak adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo haiek aztertuta ondorioztatzen bada ez dutela betetzen 3. oinarrian eskatzen diren baldintzetakoren bat, edo ez badaukate eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala, ezin izango dira karrerako funtzionario izendatu, eta deuseztatuta geratuko dira haien jardun guztiak, eskabidean datu faltsuak emateagatik bereganatu lezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Holako kasuetan, gaingitu duten pertsonen behin betiko zerrendaren hurrenkerari jarraituko zaio, zerrendan hurrengo dagoenari eskatuz 11.1 puntuan adierazitako agiriak aurkeztu ditzan.

Arrazoi berberengatik beste norbait baztertzea gertatzen bada, prozesua errepikatu egingo da aurreko paragrafoan adierazitako moduan, eta horrela behin eta berriro, lortu arte hautatu etako inor ez baztertzea arrazoi horiengatik.

12. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

Hala ezartzen den deialdi espezifikoetan, praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, gehienez ere sei hilabetekoa.

Hala izanez gero, kuadrillaren lehendakariak praktiketako funtzionario izendatuko ditu 11. oinarrian ezarritakoaren arabera epaimahaiak proposatutako izangaia.

Hautaketa prozesuko beste aldi bat bezala praktika eta prestakuntza aldia ezarrita daukaten plaza bat baino gehiagotarako hautatuak izan diren izangaiek, horietako bat aukeratu beharko dute aldi hori hasi baino lehen. Egoera hori gertatzen bada, 11. oinarriaren azken paragrafoan azaldutako moduan jokatu da.

Praktiketako funtzionario izendatzeko aurreikusten datan hautatua aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun edo aitatasun lizentziarekin badago, izendapena atzeratu egingo da medikuaren alta jaso arte edo lizentzia amaitu arte.

Praktikaldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, aldagai hauek baloratzuz:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokaerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

Praktika eta prestakuntza aldia baloratzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, lehendakari batez eta bi kidez osatua, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Ebaluazio batzordea honela eratuta egongo da:

— Batzordeburua: kudeatzaile eginkizunak egiten dituen pertsona, edo berak eskuordetzen duen karrerako funtzionarioa.

— Bi bokal, Arabako Lautadako Kuadrillaren zerbitzuko karrerako funtzionarioak izango direnak. Bi kideek administrazio horretako beste karrerako funtzionario batzuen esku utz ditzakete beren eginkizunak.

Kideetako batek idazkari gisa jardungo du.

Ebaluazio batzordearen osaeran, ordezkaritza orekatua bermatuko da trebetasun, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean.

Ebaluazio batzordeak epaimahaiantzat ezarrita dauden funtzionamendu arau berberekin jardungo du, eta praktika eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin baloratuko du.

Praktika aldian zehar eta hura amaitu baino lehen, ebaluazio batzordeak aldi horren gaineko behin-behineko ebaluazio bat egingo du, eta horren emaitza interesdunari jakinaraziko zaio, ezezkoa bada. Praktika aldia amaitutakoan, azken ebaluazioa egingo da.

Oro har, praktika aldia gehienez ere sei hilabetekoa izango da, baina, betiere, lanpostuko benetako presentziako 398 ordu bete beharko dira gutxienez; ondorio horretarako, lan orduetan egindako prestakuntza ikastaroak benetan lan egindakotzat hartuko dira.

Ebaluazio batzordeak lehendakariari bidaliko dio behin betiko zerrenda, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran, praktika eta prestakuntza aldia gainditu duten eta lanpostuaren betekizunak betetzen dituzten izangaien karrerako funtzionario izendapena presta dadin.

Praktika eta prestakuntza aldia gainditu ezean, lehendakariaren ebazpen bidez izangaiak galdu egingo ditu karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak.

13. IZENDAPEN PROPOSAMENA.

Epaimahai kalifikatzaileak aurreko apartatuan ezarritakoa bete duten hautatuen behin betiko zerrenda egingo du, bakoitzak lortu duen destinoarekin, eta lehendakariari helaraziko dio Arabako Lautadako Kuadrillako karrerako funtzionario izendatzeko proposamen moduan. Behin betiko zerrenda hori Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

14. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA ETA LANPOSTUEZ JABETZEA

14.1. Eskatzen diren baldintzak orain arte azaldutako moduan egiaztatu dituzten hautatuen behin betiko zerrendaren bidez epaimahai kalifikatzaileak egiten duen izendapen proposamena jasota, lehendakariak, ebazten baten bidez, Arabako Lautadako Kuadrillako eskala, azpieskala eta klaseetako karrerako funtzionario izendatuko ditu zerrenda hori osatzen dutenak.

Izendapenak ALHAOn argitaratuko dira.

Izendatuak hilabeteko epean hartu behar dute jabetza karrerako funtzionario moduan, izendapena egiten duen ebazpena ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Epealdi hori hamabost egun naturalez luza daiteke, izendatuak eskatzen badu eta arrazoi justifikatua badago.

14.2 Ezarritako epean jabetza hartzen ez dutenek, eta ezinbesteko kasuetan salbu, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Lautadako Kuadrillako funtzionario izaera eskuratzeko. Kasu horietan, epaimahaiak izendapen proposamen osagarri bat helaraziko dio lehendakariari, gaitutuen behin betiko zerrendako puntuazio ordenaren arabera hala dagokien izangaien alde. Horretarako, azaldutako gorabeheraren ondorioz hutsik geratu diren plaza adina izangai deklaratuak dituzte hautatu. Izendatzeko proposatzen diren pertsona horien zerrendak bakoitzari dagokion lanpostua jasoko du, eta 5.1 oinarrian adierazten diren bulegoetako iragarki tauletan eta Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

Azkenik, 11. oinarrian eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

15. DEIALDIAREN AURKA EGITEA.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen dituzten kasu eta eretan.

16. ALDI BATERAKO ENPLEGU POLTSAK.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gaitutu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

AZKEN ARAUAK

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, hautaprobak lege-arau hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira:

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bateratua.

- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legea.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.

- Langileak Estatuaren Administrazio Orokorraren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozeduraren gutxieneko arauari eta programei buruzkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituenak.
- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuestearena.
- 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, arautzen duena ezinduen enplegu publikorako sarrera eta haien lanpostuen hornidura.
- Pre/1822/2006 Agindua, ekainaren 9koa, ezartzen dituen ezinduek enplegu publikoa eskuratzeko hautaketa-prozesuetan denbora gehigarriak egokitzeko irizpide orokorrak.

I. ERANSKINA. OINARRI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOAK, A (A1) TALDEA, ARKITEKTOA

1. DEIALDIKO PLAZAK.

Dei egiten da lehiaketa-oposizio sistemaren bidez administrazio bereziko azpieskala tekniko-koko plaza 1 betetzeko (arkitektoa, A taldea A1(A) azpitaldea), ondoko banaketaren arabera: plaza 1 sistema irekiko txanda orokorraren bidez, derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, arkitektura gradua edo baliokideko titulua eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki (arkitekturako lizentziatura, arkitekto lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen unibertsitate gradua edo unibertsitate gradua gehi arkitekto lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen masterra).

Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko dute.

Halaber, deialdiko plaza betetzeko, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA-PROZESUA.

3.1. Oposizio aldia.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

3.1.1. Lehenengo ariketa (gehienez 10 puntu).

Ariketa honetan gehienez ere hamar (10) puntu lor daitezke. Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko eta zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxieneko bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxieneko bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziozko banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

3.1.2. Bigarren ariketa (gehienez 16 puntu).

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiek bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara proba.

Euskara azterketa, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Kuadrillako idazkaritza. Senda de Langarika plaza 4, 01200 Agurain.

3.3. Lehiaketa aldia.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia (6 puntu gehienez).

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,1 punturekin edozein herri administrazioetan A1 (A) azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen arkitekto titulua edo baliokidea edukitzea, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioako aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu horretan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagokion proportzioan murriztuko da.

3.3.2. Informatikaren ezagutza (gehienez 0,50 puntu).

Gehienez ere 0,50 puntutaraino ITxartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelania)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskara)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-goenak.

3.3.3. Prestakuntza (1,5 puntu gehienez).

Deialdiko plazarekin zuzenean loturiko eta ikastegi ofizialek edo administrazio publikoek emandako prestakuntza ikastaro bakoitzeko (hirigintza arloko ikastaro espezifikoak: plangintza, diziplina, kudeaketa, etab.):

- 51 - 100 ordu: 0,25.
- 101 - 300 ordu: 0,45.
- 301 - 450 ordu: 0,75.
- 450 - 600 ordu: 1,00.
- 601 ordu baino gehiago: 1,50.

4. Praktika eta prestakuntza aldia.

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. Aldi baterako lan poltsa.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gainditu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

II. ERANSKINA. GAI ZERRENDIA

1. GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).

2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolaketa (137-158 artikulua).

3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.

4. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriaren aginteak (24-39 artikulua).

5. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II). III. titulua: Ogasuna eta ondarea (40-45 artikulua).

6. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak. I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. I. kapituluak. Udalerrria Udal mugartea.

7. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. II. titulua. II. kapituluak. Udal antolamendua. Alkatea, udalbatza, zinegotziak, tokiko gobernu batzarra, informazio batzordeak, eskumen eskuordetuak, erakundearen egitura, udaleko taldeak eta alderdi politikoak.

8. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak. VI. titulua. Ondasunak, jarduera eta zerbitzuak eta kontratazioa. VII. titulua. Toki erakundeetako langileak.

9. gaia. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. III. titulua. Udal eskumenak.

10. gaia. Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide kodea (52-54 artikulua).

11. gaia. Enplegu publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua).

12. gaia. Enplegu publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Administrazio egoerak (85-92 artikulua). 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Hizkuntza-normalizazioa (187-190 artikulua).

13. gaia. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Jarduketa-arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe-mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen efikazia (37-42 artikulua).

14. gaia. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio prozeduran interesdun direnen eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).

15. gaia. Sektore publikoko kontratuak (I). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Legearen xedea eta aplikazio eremua (1-3 artikulua). Kontratu motak (12-18 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (24-27 artikulua).

16. gaia. Sektore publikoko kontratuak (II). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia (34-35 artikulua). Baliogabetasun araubidea (38-43 artikulua).

17. gaia. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).

18. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publiko eskuratzearren eta gobernu onarena. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publiko eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publiko eskuratzeko eskubideaz baliatzea (17-22 artikulua).

19. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarritasunak: 3-22 artikulua). EAEko administrazio publikoen esparruko neurriak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, 16-25 artikulua).

20. gaia. 63/89 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillena.

2. GAI ESPEZIFIKOAK

Eraikuntza:

21. gaia. 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, eraikuntzaren antolamenduarena. Aplikazio eremua. Eraikuntzaren betekizunak. Proiektua. Gauzatutako obraren harrera eta dokumentazioa.

22. gaia. 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, eraikuntzaren antolamenduarena. Proiektugilearen betebeharrak. Obra zuzendariaren eta obra gauzatzeko zuzendariaren eginkizunak. Eskrituran agerrarazteko eta erroldatzeko betekizunak.

23. gaia. Gutxieneko irisgarritasun baldintzak. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa, eta garatzen duten arau teknikoak.

24. gaia. 68/2000 Dekretua, hiri inguruneetako, espazio publikoetako, eraikinetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

25. gaia. 80/2022 Dekretua, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.

26. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoa. Xedapen orokorrak. Oinarrizko eskakizunak.

27. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoak. Baldintza teknikoak eta administratiboak. Obra eta eraikuntza proiektuaren eta gauzatzearen baldintza orokorrak.

28. gaia. Eraikuntzaren kode teknikoak (EKT) eta haren oinarritzko dokumentuak: DB-HE, DB-HS, DB-HR, DB-SE, DB-SI, DB-SUA.

29. gaia. Eraikinen barruko telekomunikazio azpiegitura komunak. Eremu erreserbatuak eta hoditeriak diseinatzeko arauak.

30. gaia. Eraikuntzaren kalitatearen kontrola. 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitatearen kontrola arautzen duena.

31. gaia. Gutxieneko osasun eta segurtasun xedapenak eraikuntza-obretan. 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa.

32. gaia. Birgaitzeko esku-hartzeak. Eraikuntza unitateen hirigintza egokitasuna. 317/2022 Dekretua, birgaitzeko jardun babestuei buruzkoa. Urbanizatzeko esku-hartzeak.

33. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (II) Kontratuko alderdiak. Xedea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia eta kontratuaren prezioa.

34. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (III) Sektore publikoko kontratuetan eska daitezkeen bermeak. Kontratuak aldatzea.

35. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (IV): Administrazio publikoen kontratuak prestatzea.

36. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (IV): Kontratuak adjudikatzea.

37. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (VI): Administrazio kontratuen ondorioak, haiek betetzea eta azkentzea.

38. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (VII) Arau orokorrak. Obra-kontratuatarako arau bereziak.

Proiektuen eta obren jarraipena:

39. gaia. Eraikuntza eta urbanizazio proiektu teknikoak. Aurretiazko azterketak. Aurreproiektuak. Oinarritzko proiektua. Gauzatze proiektua: memoria, planoak, baldintzen agiria, aurrekontua.

40. gaia. Obraren zuzendaritza. Obra aginduak, grafikoak eta idatziak. Obraren ziurtapena. Obraren likidazioa eta harrera. Obra harreraren aktak.

41. gaia. 117/2018 Dekretua, EAEko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa.

Lurralde antolamendua eta jasangarritasuna:

42. gaia. 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

43. gaia. Lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidale-
rroetan (LAG). Baldintzatzaile gainjarriak.

44. gaia. 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza-
antolamendurako tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen.

45. gaia. EAEko Nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektoriala. 177/2014 Dekretua.

46. gaia. Bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko Arabako lurralde plana. 9/2003 Foru
Araua, martxoaren 8koa. Eremua eta araudia.

47. gaia. Araba Erdialdeko lurralde plan partziala. 277/2004 Dekretua.

48. gaia. Datu espazialen azpiegitura. Lurralde informazioaren kudeaketa eta eragileen arteko
elkarreragintasuna. Inspire zuzentaraua eta Geoaraba.

49. gaia. Geografia informazioko sistemak. Definizioa. Geografia datuak. Geografia datuen
irudikatze digitala. Geografia informazioko sistema bektorizatuak. Geografia informazioko Raster
sistemak. Lurraren eredu digitalak.

Hirigintza-plangintza eta kudeaketa:

50. gaia. 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, onartzen duena Lurzoruaren
Legearen testu bateratua. Jabetza eskubidearen edukia: ahalmenak, eginbeharrak eta kargak.

51. gaia. EAEko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoru eta hirigintzarena. Sailkapena eta
kalifikazioa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, presako neurriena.

52. gaia. 4/1990 Legea, Euskal Herriko lurralde antolakuntzarena. Printzipio gidariak. Legeak
lurralde antolakuntzarako taxututako tresnak.

53. gaia. Lurralde antolakuntzarako tresnen eraketa eta bideraketa. Administrazio koordina-
zioa: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzako Batzordea.

54. gaia. Hirigintza-plangintza. Planen hierarkia. Plan motak.

55. gaia. Udalerrietako hirigintza planeamendua. Plan orokorra. Xedea eta edukia.

56. gaia. Garapen plangintza. Planen tipologia: haietako bakoitzaren xedea eta edukia.

57. gaia. Udalerrri mailako hirigintza planen eraketa EAEn. Planak onartzeko prozedura. Admi-
nistrazio ezberdinen esku-hartzea.

58. gaia. Hiri birgaitzea, berroneratzea eta berritzea. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua,
urriaren 30ekoa, lurzoruaren eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua onartzen duena.

59. gaia. Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua. Lurzoruaren sailkapenagatik
diren mugak eta eginbeharrak: lagapenak eta urbanizazio obraren kostuak.

60. gaia. Hirigintza-plangintzako administrazio erregistroa. Hirigintza intereseko elkarteen
administrazio erregistroa.

61. gaia. Hiri lurzoruaren araubidea plan orokorrean. Hiri lurzoru finkatua eta finkatugabea.

62. gaia. Lurzoru urbanizagarriaren araubidea plan orokorrean. Katetoria ezberdinen baldintza
bereziak.

63. gaia. Antolamendu planen gauzatzea: eskumena eta printzipio orokorrak.

64. gaia. Urbanizatzeko jarduketa programak. Edukia. Dokumentazioa. Izapidetzea.

65. gaia. Planen ekonomia iraunkortasunari buruzko memoria. Edukia, xedea eta aplikaga-
rritasuna.

66. gaia. 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrena.

67. gaia. Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua EAEko lurraldearen antolamenduan. Paisaiari buruzko Europako hitzarmena. 90/2014 Dekretua, Paisaiarena.

68. gaia. Euskal kultura ondarea. Legeria: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

Hirigintza diziplina:

69. gaia. Eraikitze baimena. Kontzeptua. Izaera, helmena eta ezaugarriak. Beste administrazio baimen batzuekin batera gertatzea, eta bereziki jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen arautegian sailkatutako jarduerak burutzeko baimenekin.

70. gaia. Baimena emateko prozedura. Hirigintzako kontsulta prestatze ekintza gisa, eta baimenarekin duen lotura. Proiektu teknikoa eta elkargoaren ikus-onespena. Baimena espresuki ematea. Isilbidez ematea. Herri administrazioek sustatutako ekintzak.

71. gaia. Aurria. kontzeptua eta motak. Hirigintza legezkotasunaren babesa. Gauzatze aginduak. Zaintzeko eginbeharra.

72. gaia. Hirigintzako arau haustekak. Arau hausteen motak. Administrazio zehapenak. Foru aldundietako hirigintza ikuskatzeko zerbitzua.

73. gaia. Irekiera edo jarduera baimenak. Baimenak behar dituzten jarduerak. Irekiera baimena behar ez duten jarduerak. Irekiera baimenak ematea.

Hirigintza. Arloko legeria:

74. gaia. 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratarena.

75. gaia. 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zeinaren bidez garatzen baita azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratarena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta igorpen akustikoei dagokienez.

76. gaia. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.

77. gaia. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urena.

78. gaia. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

79. gaia. 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, turismoarena. Xedapen orokorrak eta ostatu-entresa turistikoaren sailkapena.

80. gaia. 199/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, landa-inguruneko turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituenak.

Balorazioak:

81. gaia. Hirigintzako balorazioak. Lurzoruaren oinarritzko egoerak. Lurzoru urbanizatua eta landa lurzorua. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, lurzoruaren eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritako balorazio araubidea.

82. gaia. Ondasun higiezinak baloratzeko irizpideak. Eraikuntzen balioa. 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, lurzoruaren legearen balorazio Arautegia onartzen duena.

83. gaia. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, EAEko etxebizitzarena.

84. gaia. Hilotzen Osasun Zaintzaren Erregelamendua. Estatuaren 2263/1974 Dekretua, hilerrien hirigintza-plangintza.

85. gaia. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzkoa.

86. gaia. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.

87. gaia. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena (indarrean daude 21/2013 Legearen aurka ez dauden haren zehaztapenak).

88. gaia. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

89. gaia. 6/1995 Foru Araua, otsailaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzekoa.

90. gaia. 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, mendiena, eta haren garapenerako arauak.

III. ERANSKINA. OINARRI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN AZPIESKALA, ERDIALDEKO GIZARTE-LAGUNTZAILEA, A2 (B) TALDEA

1. DEIALDIKO PLAZAK.

Dei egiten da lehiaketa-oposizio sistemaren bidez administrazio bereziko erdi-mailako teknikarien azpieskalako plaza 1 betetzeko (erdialdeko gizarte-laguntzailea, A2 (B) taldea), derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, gizarte-laneko titulua / gizarte-laneko diplomatura edo baliokidea eduki beharko da, edo hori jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Halaber, deialdiko plaza betetzeko, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. DEIALDIAN IZENA EMATEKO ORDAINDU BEHARREKOTASAK.

3.1. Dagokion ordenantzan ezarritakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzeko ordaindu behar den tasa 15 euro da aurkeztutako eskaera bakoitzeko, oinarri orokorretako 5.4 puntuan jasotzen diren salbuespen eta hobariekin.

3.2. Tasa hori erakundearen ES80 2095 3234 1110 9523 zenbakiko kontuan dirua sartuz ordainduko da. Eskaerarekin batera transferentziaren froga-agiria aurkeztu beharko da.

4. HAUTAKETA-PROZESUA.

4.1. Oposizio aldia.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak (lehenengoa eta bigarrena).

4.1.1. Lehenengo ariketa.

Ariketa honetan gehienez ere hogeita (20) puntu lor daitezke. Nahitaezko proba bat izango da, zeinean erantzun beharko baitzaio, idatziz eta epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko eta zati espezifikoeko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Zuzeneko puntuazioa formula hau aplikatzearen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerrearen herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Azken puntuazioa hamar (10) izateko, beharrezkoa izango da, aipatutako formula aplikatu ondoren, zuzeneko puntuazioa lor daitekeen zuzeneko puntuazio maximoaren ehuneko hiru-rogei (ehuneko 60) izatea.

Lehenengo ariketa honetan hamar (10) puntuko edo gehiagoko azken puntuazioa lortzen duten hautagaien kopurua deialdiko plazen kopurua bider 10 baino txikiagoa izanez gero, beheratu egingo da hamar (10) puntuko azken puntuazioa lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa, hamar (10) puntuko edo gehiagoko azken puntuazioa duten pertsonak deialdiko plazen kopurua bider 10 baino gehiago izan gabe. Zuzeneko puntuazioa beheratzeak ezin ekar dezake inoiz ere ehuneko berrogei (ehuneko 40) baino gutxiagoko mugak aplikatzerik.

Aurkeztutako pertsona-kopurua dela-eta ezinezkoa bada deialdiko plazak bider 10 egitea, gehienez lor daitekeen zuzeneko puntuazioaren ehuneko berrogei (ehuneko 40) egiten duena ezarriko da betiere hamar (10) punturen baliokideko zuzeneko puntuazio moduan.

Hamar (10) punturen baliokidea den zuzeneko puntuazioa ezarrita, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, hogeï (20) puntuko azken puntuazioa lor daitekeen gehieneko zuzeneko puntuazioarekin bat etor dadin, eta azken puntuazioa (0) zuzeneko puntuazioko zero (0) punturekin bat etor dadin. Tarteko puntuazioak proportzionalki kalkulatu dira.

Eragiketa hauek guztiak izangaiek nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

Kanporatuta geratuko dira hamabost (10) puntutara heltzen ez diren izangaiek.

4.1.2. Bigarren ariketa.

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi teoriko-praktiko bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hogeï (20) puntura kalifikatuko da, eta hamar (10) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatu egingo dira.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Azken puntuazioa hamar (10) izateko, beharrezkoa izango da, aipatutako formula aplikatu ondoren, zuzeneko puntuazioa lor daitekeen zuzeneko puntuazio maximoaren ehuneko hiru-rogei (ehuneko 60) izatea.

Bigarren ariketa honetan hamar (10) puntuko edo gehiagoko azken puntuazioa lortzen duten hautagaien kopurua deialdiko plazen kopurua bider 10 baino txikiagoa izanez gero, beheratu egingo da hamar (10) puntuko azken puntuazioa lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa, bigarren ariketa honetan, hamar (10) puntuko edo gehiagoko azken puntuazioa duten pertsonak deialdiko plazen kopurua bider 10 baino gehiago izan gabe. Zuzeneko puntuazioa beheratzeak ezin ekar dezake inoiz ere ehuneko berrogeita hamar (ehuneko 50) baino gutxiagoko mugak aplikatzerik. Aurkeztutako pertsonen kopurua dela-eta ezinezkoa bada deialdiko plazak bider 10 egitea, gehienez lor daitekeen zuzeneko puntuazioaren ehuneko berrogeita hamar (ehuneko 50) egiten duena ezarriko da betiere hamar (10) punturen baliokideko zuzeneko puntuazio moduan.

Hamar (10) punturen baliokidea den zuzeneko puntuazioa ezarrita, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, hogeï (20) puntuko azken puntuazioa lor daitekeen gehieneko zuzeneko puntuazioarekin bat etor dadin, eta azken puntuazioa (0) zuzeneko puntuazioko zero (0) punturekin bat etor dadin. Tarteko puntuazioak proportzionalki kalkulatu dira.

Eragiketa hauek guztiak izangaiek nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

4.2. Euskara proba.

Euskara azterketa, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenean edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenean euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Kuadrillako idazkaritza. Senda de Langarika plaza 4, 01200 Agurain.

4.3. Lehiaketa aldia.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baliotzatuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

4.3.1 Esperientzia.

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,1 punturekin edozein herri administrazioetan A2 (B) taldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen gizarte-laneko titulua / gizarte-laneko diplomatura edo baliokidea edukitzea, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoan, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioetako aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontraturekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu honetan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagozkion proportzioan murriztuko da.

4.3.2. Informatika ezagutza.

Gehienez ere 0,50 puntutaraino IT Txartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharragoenak.

4.3.3. Euskara.

3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea 2,5 punturekin baloratuko da.

5. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz.

6. ALDI BATERAKO LAN POLTSA.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gainditu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

IV. ERANSKINA. GAI ZERREDA**1. GAI KOMUNAK**

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
3. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriaren aginteak (24-39 artikulua).
4. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen. I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. II. kapituluak. Udal antolamendua. Alkatea, udalbatza, zinegotziak, tokiko gobernu batzarra, informazio batzordeak, eskumen eskuordetua, erakundearen egitura, udaleko taldeak eta alderdi politikoak.
5. gaia. 63/89 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillena.
6. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide kodea (14-54 artikulua). Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua).
7. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Lanpostuak hornitzea eta mugikortasuna (78-84 artikulua) Administrazio egoerak (85-92 artikulua). Diziiplina araubidea (93-98 artikulua).
8. gaia. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Xedapen orokorrak (1-2 artikulua). Prozeduran interesdun direnak (3 – 12 artikulua). Jarduketa-arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe-mugak eta epeak (29-33 artikulua).
9. gaia. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzen betekizunak (34-36 artikulua). Egintzen efikazia (37-46 artikulua). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47-52 artikulua).
10. gaia. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Legearen xedea eta aplikazio eremua (1-3 artikulua). Kontratu motak (12-18 artikulua).
11. gaia. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuen babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).
12. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriak: 3-22 artikulua). EAEko administrazio publikoen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako: 18-22 artikulua). Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Plana.
13. gaia: Arabako Lautadako Kuadrillako Hizkuntza Normalizatzeko Plana: hizkuntza-irizpideak.

2. GAI ESPEZIFIKOAK

14. gaia. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuei buruzkoa (1-58 artikulua).
15. gaia. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu zorroari buruzkoa (1-34. artikulua).
16. gaia. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu zorroari buruzkoa (1. eta 3. eranskinak).

17. gaia. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu zituen.

18. gaia. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonalaren sustapenari eta mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzkoa (1-31 artikulua).

19. gaia. Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere. (43-89 artikulua).

20. gaia. Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua, arautzen dituena autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalak laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

21. gaia. Bioetikaren printzipioak. Diputatuen Kontseiluaren 14/2011 Foru Dekretua, martxoaren 1koa, Arabako Lurralde Historikoan esku-hartze sozialeko etika batzordeak sortzeko eta kreditatzeko modua arautzen duena.

22. gaia. Tresna tekniko komunak: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa (1-4 artikulua) eta 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterketa Balioesteko Tresna onesten duena (1-6 orrialdeak).

23. gaia. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriak buruzkoa (1-44 eta 61-69 artikulua).

24. gaia. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimei diren emakumeentzako harrera baliabideak arautzen dituena.

25. gaia. Erakundeen arteko koordinazioa tratatu txarren biktimei laguntzeko: Etxean tratatu txarrak jasaten dituzten eta sexu indarkeriaren biktimei diren emakumei arreta hobea emateko erakundeen arteko III. akordioa.

26. gaia. Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2017 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen foru sarean integratutako Adineko Pertsonentzako Zentroen Oinarrizko Estatutua onesten duena.

27. gaia. 11/2016 Legea, uztailaren 8koa, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzeari buruzkoa.

28. gaia. 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duena.

29. gaia. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioarena berresteko tresna, New Yorken egina 2006ko abenduaren 13an (1-34. artikulua).

30. gaia. Gobernu Kontseiluaren 10/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, onesten duena dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko egoitza-arretako zentroen, eguneko zentroen eta zentro okupazionalen oinarrizko estatutua.

31. gaia. Esku-hartze sozialeko etika. Printzipioak eta balioak. Intimitatea, konfidentzialtasuna, sekretu profesionala. Gatazka etikoak.

32. gaia. Gizarte-laneko kode deontologikoa.

33. gaia. Esku-hartze ereduak gizarte-lanean. Pertsona ardatz duen arreta integralaren ereduak.

34. gaia. Kasuen kudeaketa gizarte zerbitzuetan.

35. gaia. Banakako eta familiako gizarte-lana: gizartean esku hartzeko metodologia.
36. gaia. Gizarte-laneko teknikak: elkarrizketa eta etxerako bisita.
37. gaia. Txosten soziala. Kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuenak.
38. gaia. Mendekotasuna duten pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak eta gaixotasun mentala duten pertsonak etxean eta beren ingurunean zaintzea. Zaintzak zaintzailearen osasunean, ongizatean eta komunitateko parte-hartzean dituen ondorioak. Gizarte zerbitzuetatik zaintzaileei laguntzea.
39. gaia. Talde lana eta diziplinartekotasuna bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetan. Gizarte-lanaren figura talde horietan. Helburuak, funtzioak, esku hartzeko eremuak.
40. gaia. Beregaineko bizitzarako laguntza eredua Araban.
41. gaia. Mendekotasun egoeran dauden pertsonei, desgaitasuna dutenei, gaixotasun mentala dutenei eta babesgabetasun egoeran dauden helduei arreta pertsonalizatua emateko plana egitea. Esku-hartzea lantzeko eta jarraipena egiteko prozedura. Esku hartzen duten pertsona eta profesionalak. Erreferentziazko profesionalak.
42. gaia. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko (48-85 artikulua). 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. (1. kapituluak: 2. eta 4. artikulua).
43. gaia. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarena. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa 2021.
44. gaia. Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2022 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, onesten duena gaixotasun mentalak dituztenentzako Arabako Lurralde Historikoko egoitza-arretako zentroen, eguneko zentroen eta zentro okupazionalen oinarritzko estatutua. (ALHAOren 75. zenbakia, 2022ko ekainaren 29a, asteazkena).
45. gaia. Haurren eta nerabeen sexu abusua. Definizioa eta ezaugarriak.
46. gaia. Gurasoekiko indarkeria. Definizioa eta ezaugarriak.
47. gaia. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeekiko familiako esku-hartzea: definizioa eta helburuak, erabakiak hartzeko oinarritzko printzipioak. Esku-hartze motak kasuaren premiararen arabera: zein kasutan aplikatzen den, eta esku hartzeko estrategiak.
48. gaia. Atxikimenduaren teoria. Oinarritzko kontzeptuak. Atxikimenduaren sorrera. Atxikimenduaren garapena bizi-zikloan zehar.
49. gaia. Egoera arriskutsuetan eta babesik gabeko egoeretan larritasuna baloratu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrei eta nerabeei arreta eta babesa ematen dieten udaletako eta lurraldeetako gizarte zerbitzuetan (BALORA).
50. gaia. Arabako Lurralde Historikoko haurrentzako gizarte zerbitzuetarako jarduketa-gida.
51. gaia. Bizi kalitatearen eredua: Eredua, kontzeptua, dimentsioak eta adierazleak, ebaluazioa. Banako, familiako eta antolakundeetako aplikazioak gizarte zerbitzuetan.
52. gaia. Adimen desgaitasuna eta zahartzea.
53. gaia. Herritarren parte hartzea: 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko elkarteei buruzkoa.
54. gaia. Adinekoenganako abusua eta tratatu txarra. Prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea.
55. gaia. Iraupen luzeko eta bizitzaren amaierako zainketak. Adinekoari eta haren familiari prozesuan arreta eta laguntza emateko gizarte-lana. Doluan laguntzea. Aurretiazko borondateen agiria.

56. gaia. Gaixotasun mentala duten pertsonak sendatzera bideratutako arreta.

57. gaia. 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena (I., II., III. tituluak).

58. gaia. 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena (VI., VII. eta VIII. tituluak).

59. gaia. Etxe-gabezia: kontzeptualizazioa eta kausak. (Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko eta murrizteko EAEko estrategia 2018-2021, 2. kapitulua) Gizarte-laguntza.

60. gaia. Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia.